

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **329/2017 Foru Agindua, abenduaren 27koa, hutsak zuzentzea onartzen duena 2018ko "San Prudentzio" kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdian**

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren azaroaren 22ko 314/2017 Foru Aginduaren bidez, 2018ko "San Prudentzio" kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdia onartu zen. Foru agindu hori 2017ko abenduaren 20an argitaratu zen ALHAOn (144. zenkaban).

Deialdia argitaratuta, huts bat antzeman da "San Prudentzio" kirol jarduerak egiteko egunetan, zeinak deialdiaren lehen eta laugarren paragrafoetan ageri diren.

Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea, 2018ko "San Prudentzio" kirol jarduerak egiteko dirulaguntza deialdiaren lehen eta laugarren paragrafoan egindako hutsak zuzentzea. Deialdi hori Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren azaroaren 22ko 314/2017 Foru Aginduaren bidez onartu zen.

Hau dioen lekuan:

#### **Lehena. Kontzeptua eta xedea**

Deialdiaren helburua da, lehiaketa bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2018ko "San Prudentzio" kirol jarduerak antolatzeak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoaren esparruan.

"San Prudentzio" kirol jarduerak dira 2018ko apirilaren 22tik maiatzaren 7ra bitartean (biak barne) egiten diren probak, txapelketak, erakustaldiak eta antzeko beste proba batzuk.

#### **Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak**

San Prudentzio jaiegunaren inguruan Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian egiten diren kirol jardueretarako (probak, txapelketak, erakusketak eta antzekoak) eman ahal izango da dirulaguntza.

Jarduerak 2018ko apirilaren 22tik maiatzaren 7ra bitartean, biak barne, programatu eta egin beharko dira.

Hau esan behar du:

#### **Lehena. Kontzeptua eta xedea**

Deialdiaren helburua da, lehiaketa bidez, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2018ko "San Prudentzio" kirol jarduerak antolatzeak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoaren esparruan.

"San Prudentzio" kirol jarduerak dira 2018ko apirilaren 21etik maiatzaren 6ra bitartean (biak barne) egiten diren probak, txapelketak, erakustaldiak eta antzeko beste proba batzuk.

**Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak**

San Prudentzio jaiegunaren inguruan Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian egiten diren kirol jardueretarako (probak, txapelketak, erakusketak eta antzekoak) eman ahal izango da dirulaguntza.

Jarduerak 2018ko apirilaren 21etik maiatzaren 6ra bitartean, biak barne, programatu eta egin beharko dira”

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Gainerakoan, bere horretan eustea azaroaren 22ko 314/2017 Foru Aginduari.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 27a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*  
**IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE**